

## KOSTUEN EGITURA

Gure negozio-eredua aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiei kostuen egitura deritzogu. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak kostu horiei aurre egin beharko die hilabete hilabetero.

Gure kostuen egitura hainbat motatakoa izan daiteke, esate baterako: kostu finkoak eta kostu aldakorak izango ditugu.

Baina hala ere nahiz eta kostu horiek izan, gure helburua kalitate oneko produktuak merke saltzea baina irabazi iturriak izatea, horretarako, garrantzitsua da kostuen egiturak ondo funtzionatzea eta dirua ondo antolatzea.

Gure kostu finkoen barruan alokairua daukagu aurrekoan esan dugun bezala.

Hau da, gure denda nahi badugu toki ezagun baten kokatu, Donostian adibidez Amara kalean, beharrezkoa da toki horretarako diru asko jartzea. Azkenean kale ezagun baten kokatuz gero, beste konpetentzia batzuk daude eta denboraldiaren arabera zailagoa izan litzateke merkataritza aurrera eramatea horren eraginez. Horrez gain, langileei soldata bat ordaindu beharko diegu beraz hori ere bai kostu finko gisa hartuko dugu.

Gure kostu aldakorak produktuak dira, baina guztia zerbitzuaren araberarakoa izango da. Hau da, hilabetero kostu aldakor desberdinak izango ditugu, erosten dugun materialaren prezioa aldatu egin daitekeelako eta baita guk erosten dugun material kantitatea. Horrez gain, lokaleko argia eta elektrizitatea hilerok aldatuko da gure kontsumoaren arabera,beraz, kostu aldakor bat izango da.

<b>KOSTU FINKOAK</b>	
Langileen soldata	1.300€
Alokairua	1.500€
Materiala	1.100€
Publizitatea (online webgunea)	1.100€

